# Ingurumenaren Aholku Kontseiluaren 44. bilera

## 44ª Reunión del Consejo Asesor de Medio Ambiente

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena:**<br>Convoca: | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua:**<br>Fecha, lugar y hora | **2010eko abenduaren 16a**/ 16 de diciembre de 2010<br>**Gobernu Batzordearen Sala**/Sala de Comisión de Gobierno<br>**18:40etan** / A las 18:40 horas |
| **Amaiera ordua:**<br>Hora de finalización: | **20:40ean /** A las **20:40** horas |
| **Harremanetarako pertsona:**<br>Persona de contacto: | Leire Sarobe (Haizea Ikerketa S.L.) |
| **Telefonoa:**<br>Teléfono: | 943 392229 |
| **Helbide elektronikoa**<br>Correo electrónico | haizea@haizeaikerketa.com |
| **Gai-zerrrenda:**<br>Orden del día | **1. Aurreko aktaren onarpena (2010eko azaroaren 11ko bilerari dagokion akta).**<br>**2. Ingurumen arloko 2010 eta 2011ko aurrekontuak**<br>**3. Aldaketa Klimatikoa: Alkateen Ituna eta Donostia - CO2: Familiak klimaren alde**<br>**4. IAKen partaidetzari buruzko inkestaren emaitzak**<br>**5. Monografikoak: lehentasuna**<br>**6. 2011ko programazioa**<br>**7. Planeamenduko Aholku Kontseiluko eta Gizarte Kontseiluko bileretan aztertutako gaiei buruzko informazioa**<br>**8. Norberak lekarkeena**<br><br>1. Aprobación del Acta anterior (correspondiente a la sesión del 11 de noviembre)<br>2. Presupuesto Área de Medio Ambiente 2010 y 2011<br>3. Cambio Climático: Pacto de Alcaldes y Hogares Donostia - CO2<br>4. Resultados encuesta sobre participación en el CAMA<br>5. Monográficos: priorización<br>6. Programación 2011<br>7. Información sobre los temas tratados en el Consejo de Planeamiento y del Consejo Social<br>8. Ruegos y preguntas |
| **Parte hartu dute:**<br>14 partaidek | **Asistieron:**<br>14 Personas |

**Ingurumenaren Aholku Kontseiluko kideak** /Componentes del Consejo Asesor de Medio Ambiente

- **Ingurumenaren Aholku Kontseiluko lehendakaria**/ Presidente del Consejo Asesor de Medio Ambiente:

  **Miguel Angel Díez Bustos** (PSE. Ingurugiroko Zinegotzia / Concejal de Medio Ambiente)

- **Elkarteak, Herritarrak, Etab/** Asociaciones, Ciudadanos/As, Etc:

  **AZTI** (Raul Castro)
  **EA** (Ricardo Burutarán)
  **EMAUS** (Begoña Cabaleiro)
  **FUNDACIÓN CRISTINA ENEA FUNDAZIOA** (Jose Mª Hernandez)
  **HARITZALDE** (Marko Sierra)
  **INGEBA** (Juan Antonio Saez)
  **KUTXAESPACIO** (Mikel Goñi)
  **SEO/Birdlife Donostia** (Josefi Paz)
  **SEO/Birdlife Donostia** (Pedro Cruzado)
  **UGATZA ORNITOLOGIA** (Josema Verdugo)

**Udal Teknikariak /** Técnicos municipales

**Victoria Iglesias** (Ingurumen Saileko Zuzendaria/ Directora del Departamento de Medio Ambiente)
**Ana Juaristi** (Aldaketa Klimatikoa eta Tokiko Agenda 21eko Zerbitzu burua/ Jefa del Servicio de Cambio Climático y Agenda Local 21)

**Idazkaritza Teknikoa** / Secretaría Técnica

**Haizea Ikerketa S.L.** (Maider Etxaide)
**Haizea Ikerketa S.L.** (Leire Sarobe)

| | |
|---|---|
| **1. Aurreko aktaren onarpena (2010eko azaroaren 11ko bilerari dagokion akta).**<br>EAko ordezkariak ondoko ñabardura eransten du: "EAko ordezkariak uste du emandako lizentzien jarraipena egiteko zailtasunak daudela" [4. or. , 7. parrafoa], dioen tokian xehetasunez adierazi behar da *"Udalak emandako lizentziak ez datoz bat Ministerioak buletin ofizialean argitaratutakoekin eta, beraz, ez da posible jarraipenik egiterik"*. Eskatzen du baita ere gaztelerazko testuan "EAko ordezkariak (emakumea) monografikoei ematen zaien zabalkundeari buruz galdetzen du" dioen tokian *"EAko ordezkaria (gizona)"* idatz dadila [gaztelerazko testuaren 6. or., 7. parrafoa].<br>Aztiko ordezkariak, bilera hartan egon ez zen arren, ondoko ñabardura eransten du: "*Miguel Ángel Díezek Aztiko ordezkariaren e-mail bidezko ekarpena irakurtzen du, non proposatzen duen bilerak goizetik izan daitezen"* dioen lekuan eguneko ordutegiari buruz ari dela, ez goizekoaz, proposamena bileraren hasiera 17:00 ingurura aurreratzea izanik [6. or., azken párrafoa].<br>Adierazitako aldaketak jaso ondoren aurreko akta onartzen da.<br>Aurreko saioetara etorri ez diren bi pertsona daudenez bileran, bertaratutako guztien aurkezpena egiten da. | **1. Aprobación del Acta anterior (correspondiente a la sesión del 11 de noviembre)**<br>El representante de EA matiza que donde se recoge "El representante de EA considera que existe dificultad para hacer un seguimiento de las licencias otorgadas" [pág. 4, párrafo 7º], se debe detallar *"No coinciden las licencias concedidas por el ayuntamiento con las publicadas en el boletín oficial por el Ministerio, lo cual no permite hacer seguimiento"*. Solicita que asimismo se cambie donde se recoge "La representante de EA pregunta por la difusión que se les da a los monográficos" por *"El representante de EA [...]"* [pág. 6, párrafo 7º].<br>El representante de Azti, si bien no estuvo presente en la reunión, puntualiza que donde dice "*Miguel Angel Díez lee la aportación por e-mail del representante de Azti en la que propone que las reuniones sean por la mañana"*, se refiere a horario diurno, no matinal, adelantando el comienzo las reuniones hacia las 17:00 [pág. 7, párrafo 1º].<br>Tras las modificaciones pertinentes se aprueba el acta anterior.<br>Dada la presencia de dos personas que anteriormente no habían acudido a sesiones anteriores, se realiza una ronda de presentaciones. |
| **2. Ingurumen arloko 2010 eta 2011ko aurrekontuak**<br>Victoria Iglesiasek Ingurumen Departamentuaren 2010eko aurrekontua aurkezten du, 3,5 milioiko aurrekontu esleituarekin, honela banatua: 1. Kapituluan (langile gastua) 2,9 milioi euro eta milioi bat euro inguru 2. Kapituluan (ondasun korronte eta zerbitzuetan eginiko gastuak), hauetatik %50 zerbitzu kontratei dagozkielarik.<br>Aztiko ordezkariak galdetzen du udaletxe aurrekontuaren zein portzentaia den kantitate hori. Victoria Iglesiasek ez du datua eskutan.<br>2011ko aurrekontuari dagokionean, Victoria Iglesiasek aurreratzen du mantendu egingo dela zifratan baina kontzeptutan aldaketak egongo direla. Ondoko kontu-sailak nabarmentzen ditu: irisgarritasun inbertsioen berreskurapena, Zarata Mapa egitea, udal eraikinen energi birgaitzea, ingurumenarekin diharduten erakunde eta proiektuei dirulaguntzak, hondakinen prebentzioa eta Mugikortasun Departamentuari zein Erosketa Berdearen inguruan emandako aholkularitza. Ekimen hauetarako 150.000 € inguru dauzkate.<br>Aztiko ordezkariak galdetzen du ea aurkeztutako aurrekontuan Ingurumen Sailak jaso ditzakeen balizko dirulaguntzak jasotzen ote diren.<br>Ana Juaristik aditzera ematen du ez direla jasotzen ez baitira Departamenduari dagozkion kontu-sail bezala sartzen baizik eta Udaletxearen kontu-sail gisa. 2010ean GFA-ren dirulaguntzak jaso ziren hondakinen arlorako, Eusko Jaurlaritzarenak Agenda 21erako, EEErenak Alkateen Itunerako eta Europar Batasunetik energiarako, denetara burututako ekintzen kostuaren %40 izanik.<br>EAko ordezkariak galdetzen du ea aipaturiko hondakinen 55.000 €ak 5. edukiontzirako ote diren. | **2. Presupuesto Área de Medio Ambiente 2010 y 2011**<br>Victoria Iglesias presenta el presupuesto 2010 del Área de Medio Ambiente, con una asignación de alrededor de 3,5 millones de euros repartidos en 2,9 millones de euros en el Capítulo 1 (gasto de personal) y alrededor de 1 millón de euros en el Capítulo 2 (gastos en bienes corrientes y servicios), de los cuales el 50% aproximadamente corresponde a contratas de servicios.<br>El representante de Azti pregunta qué porcentaje del presupuesto municipal supone. Victoria Iglesias no dispone del dato.<br>Respecto al presupuesto de 2011, Victoria Iglesias avanza que en cifras se va a mantener pero que habrá cambios en conceptos. Destaca las partidas para recuperar las inversiones de accesibilidad, la realización del Mapa de Ruido, la rehabilitación energética de los edificios municipales, la subvención a entidades y proyectos medioambientales, prevención de residuos y asesoramiento a Movilidad y en Compra Verde. Para estas actuaciones se dispone de alrededor de 150.000€.<br>El representante de Azti pregunta si en el presupuesto presentado se recogen las subvenciones que se puedan otorgar al Área de Medio Ambiente.<br>Ana Juaristi informa de que no se recogen porque no entran como partidas del Departamento sino como partidas del Ayuntamiento. Durante 2010 se recibieron subvenciones de la DFG para residuos, del Gobierno Vasco para Agenda 21, del EVE para el Pacto de Alcaldes y de la UE para energía, suponiendo alrededor del 40% del gasto de las acciones.<br>El representante de EA pregunta si los 55.000€ mencionados para residuos son para el 5º contenedor. |

| | |
|---|---|
| Ana Juaristik jakinarazten du 5. edukiontzia Mantenimendu eta Hirigintza Zerbitzuen aurrekontuetan sartzen dela, ez Ingurumen Sailaren aurrekontuan. Hondakinen diru-saila hondakinen inguruko prebentzio ekintzak dauzka bere baitan (Donostitruk, baso berrerabilgarriak, vending makinetarako katiluak, pixoihal berrerabilgarriak, etab.) eta, beste zenbait kontzepturen artean, konpostatzeko poltsak.<br><br>Victoria Iglesiasek jakinarazten du hitzarmen bat sinatu dela San Marko Mankomunitatearekin 5. edukiontziarekin bilketa finkatzeko. Helburu horrekin Mankomunitatearen dirulaguntza jasoko da, zeina era berean GFA-tik jasotzen baita.<br><br>**3. Aldaketa Klimatikoa: Alkateen Ituna eta Donostia - CO2: Familiak klimaren alde**<br><br>Ana Juaristi Donostia-$CO_2$: familiak klimaren alde egitasmoaren inguruan informazioa eskaintzen du. Honen helburua da hiritarren ardurakidetasuna lortzea klima aldaketaren aurkako borrokan, hots, jendearen ohitura aldaketa lortzea etxeetako $CO_2$ emisioen txikitzera daramana eta, era berean, etxeetako emisioen benetako potentzialari buruzko informazioa edukitzea. Auzoz auzo lan egin da eta baita Eskolako Agenda 21ean dauden eskola aktiboenekin ere. Lehen fasea 2010eko apirila eta ekaina bitarte garatu da eta bigarrena, berriz, 2011ko urtarrilean abiaraziko da eta apirila bitarte iraungo du.<br><br>Programaren egitura ondokoa da: etxeetako ohiturak ezagutzeko hasierako inkesta bat egiten da eta ondoren kontagailu adimendun bat instalatzen da une bakoitzeko energi gastua neurtzen duena eta diru zein $CO_2$ emisio moduan irudikatzen duena. Astero gomendioak bidaltzen dira eta etxe bakoitzerako azken txosten bat egiten da.<br><br>Programaren lehen fasean, bertan 45 etxek parte hartu dute, etxe bakoitzeko %10eko murrizketa lortzea espero zen baina azkenean %5 lortu da. Arrazoia izan daiteke parte hartu duten familiak ingurumenaren aldetik aktibo samarrak direla eta horregatik murrizketa margena txiikiagoa dela. Ana Juaristik IAKeko partaideei beren elkartekide, lagunarte eta familiari bigarren fase honetan parte hartzeko deialdia zabal diezaietela gonbita egiten die.<br><br>Ana Juaristik Alkateen Klimaren aldeko Ituna Europako Batzordeak sustatutako borondatezko programa bat dela jakitera ematen du. Donostiako udala programa horretara atxiki egin da eta horrekin batera hainbat konpromiso bere gain hartu ditu, besteak beste, BEGak 2020 urteari begira %20 murriztea eta Energia Iraunkorreko Ekintza Plan (EIEP) bat ezartzea. EIEParen gauzatzearekin ekintza bakoitzari espero den $CO_2$ emisioen murrizketa eta ekonomi kostua esleituko zaio. EIEPa modu partehartzailean gauzatuko da gune desberdinak erabiliz: lan talde bat sortu dagokion teknikariekin, Agenda 21eko Hondakin, Mugikortasun eta Energiaren Mahai Teknikoen bilera, IAKaren partehartze saio baten bidez eta hiritar orori zuzenduriko online partehartzea. 2011ko urtarrilerako beharrezkoa den informazioa bilduko da eta EIEParen zirriborroa egingo da. 2011ko otsailean aurretik aipatutako guneetan aztertu eta eztabaidatuko da eta ondoren behin betiko txostena tajutuko da eta 2011ko apirilean Tokiko | Ana Juaristi informa que el 5º contenedor entra en los presupuestos de Mantenimiento y Servicios Urbanos, no en el presupuesto del Área de Medio Ambiente. La partida de residuos comprende acciones de prevención en tema de residuos (Donostitruk, vasos reutilizables, tazas para máquinas de vending, pañales reutilizables etc.) y, entre otros conceptos, las bolsas de compostaje.<br><br>Victoria Iglesias informa que se ha firmado un convenio con la Mancomunidad de San Marcos para afianzamiento de la recogida con el 5º contenedor, por el cual, se recibirá una subvención de la Mancomunidad, que a su vez la recibe de la DFG.<br><br>**3. Cambio Climático: Pacto de Alcaldes y Hogares Donostia - $CO_2$**<br><br>Ana Juaristi informa sobre el programa Hogares Donostia -$CO_2$, que tiene como objetivo lograr la corresponsabilidad de la ciudadanía en la lucha por el cambio climático, lograr un cambio de hábitos que conduzca a una disminución de emisiones de $CO_2$ de los hogares y al mismo tiempo, tener información sobre el potencial real de reducción de emisiones residenciales. Se ha trabajado barrio a barrio y a través de la Agenda 21 Escolar con los colegios más activos. La primera fase se ha desarrollado entre abril y junio de 2010, mientras que la segunda fase se lanzará en enero de 2011 y durará hasta abril.<br><br>La estructura del programa consiste en una encuesta inicial para conocer los hábitos y costumbres de los hogares, en los que a continuación se instala una contador inteligente que mide el gasto energético de cada momento, representándolo en dinero y emisiones de $CO_2$. Se envían consejos semanales y se realiza un informe final para cada hogar.<br><br>En la primera fase del programa, en la que han participado 45 hogares, se esperaba alcanzar una reducción por hogar de aproximadamente el 10%, si bien finalmente se ha logrado un 5%. La razón puede encontrarse en que muchas de las familias participantes son bastante activas medioambientalmente, por lo que el margen de reducción es menor. Ana Juaristi invita a los integrantes del CAMA a que publiciten el programa entre sus asociados, familiares y amistades para que puedan participar en la segunda fase.<br><br>Ana Juaristi informa que el Pacto de Alcaldes por el Clima es un programa de carácter voluntario auspiciado por la Comisión Europea al que se ha adherido el Ayuntamiento de Donostia, adquiriendo una serie de compromisos, entre los que destacan la reducción de un 20% de las emisiones de GEIS para 2020 y la implementación de un Plan de Acción de Energía Sostenible (PAES). La elaboración del PAES, para el que se toma como año base 2007 debido a que es el año anterior al de la aprobación del Plan de Lucha Contra el Cambio Climático, supondrá asignar a cada acción la reducción esperada de emisiones de $CO_2$ y el coste económico. El PAES se realizará de forma participativa a través de varios espacios: establecimiento de un grupo de trabajo con los técnicos pertinentes, reunión de las Mesas Técnicas de Residuos, Movilidad y Energía de la Agenda 21, participación del CAMA a través de una sesión y participación on-line para la ciudadanía en |

Gobernu Batzordean onartuko da. Ana Juaristik IAKeko partaide guztiei prozesu honetan parte hartzeko gonbitea egiten die.

**4. IAKen partaidetzari buruzko inkestaren emaitzak**

Idazkaritza Teknikoak azken saioan egindako eskaerei jarraituz telefono bidez inkesta bat egin die IAKeko partaideei. Honen helburua saioetara ez etortzearen arrazoiak ezagutzea da eta galderak 2008an egindako ebaluazioan argudiatutako arrazoietan oinarritu dira. Inkesta 20 entitateri egin zaie.

[EAko ordezkariak bilera uzten du]

Idazkaritza Teknikoak lortu diren emaitzak aurkezten ditu, azken bi urteetan etorri ez diren entitateen artean (inkestaturikoen artean 8 izan dira) pisuzko arrazoi gisa agenda zamatuak, maila pertsonaleko lehentasunak, ordutegiagatiko bateraezintasuna eta gaietako asko entitateentzako interesekoak ez direla aipatu dira. Entitate hauetariko gehienek deialdiak eta erantsita bidalitako dokumentazioa irakurtzen dituztela azaltzen da. 2009-2010 bitarte etorritako entitateen aldetik pisuzko arrazoi gisa ondokoak aipatzen dira: udal jardueraren balioespena bilatzen da aholkularitzaren gainetik, eginiko eskaerei erantzun ez nahikoa, heldutako gaien interes falta eta, azkenik, pertsonal mailako lehentasunak.

Idazkaritza Teknikoak 2011ko programazio proposamena aurkezten du, zeinetan hiru oinarrizko saio jasotzen diren, otsailean, Alkateen Itunaren Energia Iraunkorreko Planarekin bat, ekainean, Iraunkortasun Txostena argitaratu ondoren eta urrian 2012ko aurrekontuak aurkezteko, besteak beste. Beste saio batzuk eta monografikoak kokatzeko aldiak ezartzen dira. Idazkaritza Teknikoak galdetzen du ea aurkeztutako programazioak sentidurik ote duen inkestan lortutako erantzuntak ikusita.

Aztiko ordezkariaren iritziz tramite hutsa da 40 entitate kide gisa hartzea askok ez baitute bileretan parte hartzen.

Ana Juaristiren ustez kezkagarriagoa da ohiki "aktiboak" izan diren zenbait entitate gehiago ez etortzea "inaktiboak" diren entitate kopuru handia edukitzea baino. Gogorarazten du IAK Tokiko Agenda 21en Ingurumen Aholku Kontseilua izateko sortu zela eta Agenda 21ean ez dauden ingurumen eragin handiko gaiak egon daitezkeela.

Miguel Angel Díezek uste du hiritarren partehartzea erraza ez dela eta elkarte askotan ez dagoela belaunaldien arteko ordezkapenik. IAKen hitz egindakoa jasoko duela eta dagokionarengana eramango duela adierazten du.

Ugatza Ornitologíako ordezkariaren iritziz elkarteak Kontseiluan ez daude ez zaielako bertan parte hartzea interesatzen.

Emauseko ordezkariak IAKaren baitan eboluzioa egon dela uste du eta gainera ez da positiboa izan, egun ez baita eztabaidarik sortzen.

Adibide gisa, Ingebako ordezkariak saio honetan azaldutako aurrekontuak jada landuak izan ondoren, aurrekontuak egiterakoan partehartzeari aukerarik eman

general. Para enero de 2011 se recopilará la información necesaria y se elaborará el borrador del PAES, borrador que será analizado y debatido durante febrero de 2011 en los espacios citados para posteriormente elaborar el documento definitivo y aprobarlo en Junta de Gobierno Local en abril de 2011. Ana Juaristi invita a todos los integrantes del CAMA a participar en este proceso.

**4. Resultados encuesta sobre participación en el CAMA**

La Secretaría Técnica explica que a raíz de las peticiones realizadas en la última sesión se ha realizado una encuesta telefónica a los integrantes del CAMA. El objetivo de la misma es conocer las razones de no asistencia a las sesiones y las preguntas se han basando en los motivos aducidos en la evaluación realizada en 2008. Se ha realizado la encuesta a 20 entidades.

[El representante de EA abandona la reunión]

La Secretaría Técnica presenta los resultados obtenidos, destacando entre las entidades que no han asistido en los dos últimos años (8 de las entidades encuestadas) como razones de peso las agendas cargadas, prioridades de carácter personal e incompatibilidad horaria y que muchas de las temáticas no son de interés para las entidades. Se constata que la mayoría de estas entidades lee las convocatorias así como la documentación adjunta enviada. Entre las entidades que han asistido durante 2009-2010 destacan como razones de peso las siguientes: búsqueda de la validación de la actuación municipal en anteposición al asesoramiento, devolución insuficiente de las solicitudes realizadas, falta de interés de las temáticas abordadas y, por último, prioridades de carácter personal.La Secretaría Técnica presenta la propuesta de programación 2011, en la que se recogen tres sesiones base en febrero –coincidiendo con el Plan de Energía Sostenible del Pacto de Alcaldes–, en junio tras la publicación del Informe de Sostenibilidad y en octubre para presentar los presupuestos 2012 entre otros temas. Se establecen asimismo periodos en los que ubicar sesiones adicionales y sesiones monográficas. La Secretaría Técnica pregunta si la programación presentada tiene sentido vistas las respuestas obtenidas en la encuesta.

El representante de Azti opina que es un mero trámite contar como miembros a 40 entidades cuando hay muchas que no participan en las reuniones.

Ana Juaristi cree que es más preocupante que dejen de asistir algunas de las entidades habitualmente "activas" que tener un número amplio de entidades "inactivas". Recuerda que el CAMA se creó con vocación de ser el Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Agenda Local 21, y que pueden existir temas con impacto ambiental importante que no estén en la Agenda 21.

Miguel Angel Díez estima que no es fácil la participación ciudadana y que no hay relevo generacional en muchas asociaciones. Manifiesta que lo hablado en el CAMA lo recoge y lo traslada.

El representante de Ugatza Ornitología opina que las asociaciones no están en el Consejo porque no les interesa participar en el mismo.

gabe, aurkeztu izana aipatzen du.

Victoria Iglesiasek argitzen du Ingurumen Saila garrantzitsuenekotzat jotzen diren jarduera edo programei buruzko IAKaren iradokizun eta ekarpenetara irekita dagoela, aurrez aipatutako 150.000€ak esleitzeari begira.

Aztiko ordezkariak aipatzen du IAKean ingurumen elkarteek betetzen duten papera indartu ez dela eta horregatik ez direla etortzen.

Ana Juaristik kezka adierazten du azken saioetan zenbait elkartek etortzeari utzi diotelako. Oinarrizko saioa urrirako programatu da 2012ko aurrekontuak elaborazioaren lehen fasean aurkezteko helburuz. Cristina Eneako Fundazioko ordezkaria ados dago partehartzeak behera egiten duela aurkezten diren gaiak jada itxita daudelako.

Emauseko ordezkariak asperdura sortu dela irizten dio. Izan ere, lehen proposamenak aurkezten ziren aholkularitza bilatzeko helburuz eta orain, berriz, gaiak modu itxiago eta teknikoagoan aurkezten dira, jendearen partehartzea mugatuz. Bere iritziz, gauza bat da IAK loteslea izatea eta beste gauza bat ez kontutan iizatea. Ziberpartehartzea interesgarria izan datekeela uste du.

Ingebako ordezkariak uste du IAKak zenbait konturi betoa jartzeko ahalmena edukitzea interesgarria izango litzatekeela.

Ana Juaristik 2011rako proposatutako programazioa, online berrindartua, onargarria . izango litzatekeen galdetzen du. Argitzen du bere aurkezpenek informazio emaile itxura eduki arren IAKaren partaideek ebaluatu eta ekarpenak egin ditzaten ekartzen dituela hona.

Victoria Iglesiasek uste du egia dela asperdura gertatu dela baina egia dela baita ere IAKen elaborazio fasean zeuden gaiak aurkeztu direla, Antenen Ordenantza edo ostalaritza establezimenduen kokapenaren Ordenantza kasu, eta IAKen aldetik adierazitakoak islatu eta ikusgarritasuna eman zaiela, hala nola, ehiza, kreosota edo Aquariumeko terrazaren inguruko kontuak.

Haritzaldeko ordezkariak aitortzen du legedia bete dadila saiatuz elkarteek denbora galtzen dutenaren sentipena duela.

Aztiko ordezkariak 2011rako proposatutako programazioa inflexio puntua denik ez du uste. IAKera espektatiba desberdinekin etortzen da eta bere aburuz hauek ez dira betetzen. Berak, partikularki etortzen jarraitzen du partehartzean sinesten duelako baina bere ustez udal politikak partehartze (hiritar eta aditua) alboratzen du.

Ana Juaristik adierazten du IAKen sortutako iruzkin eta ekarpenak oso baliagarriak direla.

Aztiko ordezkariak gai bakar bat jorratzen duten monografikoak egin daitezela iradokitzen du eta bertan aurkezten diren udal jarduera eta programa gehienak gai jakin horri buruzkoak izan daitezela.

Ingebako ordezkariak parte hartzeko aukera erabakiak hartzeko prozesuan, erabakia hartu aurretik alegia, eman behar dela aipatzen du.

Cristina Enea Fundazioko ordezkariak proposatzen du

La representante de Emaus considera que ha habido una evolución en el seno del CAMA y que no ha sido positiva, ya que no se genera debate.

A título de ejemplo, el representante de Ingeba menciona el hecho de que los presupuestos explicados en la presente sesión hayan sido presentados después de haber sido elaborados sin haber dado opción a la participación durante el proceso de elaboración de los mismos.

Victoria Iglesias aclara que el Área de Medio Ambiente está abierta a considerar sugerencias y aportaciones del CAMA sobre qué actuaciones o programas se consideran más relevantes de cara a asignar los 150.000€ antes mencionados.

El representante de Azti opina que no se ha reforzado el papel de las asociaciones ambientalistas en el CAMA y que por eso no acuden.

Ana Juaristi muestra su preocupación por el hecho de que algunas asociaciones hayan dejado de asistir a las últimas sesiones. Informa que se ha programado la sesión base en octubre con el objetivo de presentar los presupuestos 2012 en la fase inicial de su elaboración.

El representante de Fundación Cristina Enea Fundazioa corrobora la opinión de que la participación cae porque los temas que se presentan ya están cerrados.

La representante de Emaus considera que ha habido un desgaste, ya que antes se planteaban las propuestas buscando un asesoramiento mientras que ahora los temas se presentan más cerrados y más técnicos, cuestión esta última que coarta la participación. Opina que una cosa es que el CAMA no sea vinculante y otra distinta es que no se le tenga en cuenta. Cree que la ciberparticipación podría ser interesante.

El representante de Ingeba considera que sería interesante que el CAMA pudiera vetar en algunas cuestiones.

Ana Juaristi pregunta si sería aceptable la programación propuesta para 2011 reforzándola online. Aclara que aunque sus presentaciones puedan tener una apariencia informativa, las presenta para que los integrantes del CAMA evalúen y realicen aportaciones.

Victoria Iglesias considera que sí es cierto que ha habido un desgaste, pero que también es cierto que se han presentado en el CAMA temas en fase de elaboración, como la Ordenanza de Antenas o la Ordenanza de ubicación de establecimientos de hostelería, y que cuestiones planteadas en el CAMA han tenido su reflejo y visibilidad, como la caza, creosota o la terraza del aquarium.

El representante de Haritzalde declara tener la sensación de que las asociaciones pierden el tiempo haciendo que se cumpla la legislación.

El representante de Azti manifiesta que no cree que la programación propuesta para 2011 sea un punto de inflexión. Opina que viene al CAMA con distintas expectativas y que éstas no se cumplen. Él particularmente sigue viniendo porque cree en la participación, pero considera que la política municipal prescinde de la participación (ciudadana y experta).

Ana Juaristi manifiesta que los comentarios y aportaciones surgidos en el CAMA son muy valiosos.

El representante de Azti sugiere realizar monográficos en los que se trate un único tema pero en el que la mayor

monografiko bat egin dadila Alkateen Itunaren Energia Iraunkorreko Itunari ekarpenak egin ahal izateko.

Ana Juaristik gai horren inguruko informazioa eta zirriborroa IAKeko partaideei bidaliko diela proposatzen du ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Aztiko ordezkariak proposatzen du Mahai Teknikoak IAKera ekar daitezela, IAKeko partaideak Mahai Teknikoetara joan beharrean.

Haritzaldeko ordezkariak Aztiko ordezkariaren proposamenari babesa ematen dio.

Ana Juaristik aipatzen du zaila izan daitekeela udal teknikoak IAKeko saioetara eramatea baina alternatiba izan daitekeela Energia Iraunkorreko Plana diseinatzen ari den aholkularitzako energian aditu bat ekartzea eta horretan ahaleginduko direla.

Haritzaldeko ordezkariak bi saio egin daitezela proposatzen du, lehenengoa informazioa eta teknikarien azalpenak jasotzeko eta bigarrena ekarpenak egin ahal izateko. Planeamendu mahairik ba ote dagoen galdetzen du.

Ana Juaristik Agenda 21ean Hiri Garapeneko Mahai Teknikoa dagoela argitzen du. Planeamendu Mahaia HAPOaren esparruaren barnean sortu zen eta ez Tokiko Agenda 21en barnean. Bere aburuz, eztabaidatuko denak ibilbide aukerarik ez duela izango erabakitzen bada hobe dela uztea ez baita partehartze prozesu bat abiatu behar gaian eskuduntzarik eduki ezean.

Idazkaritza Teknikoak monografikoetarako proposamen berririk jaso ez dela jakinarazten du. Balizko monografiko bat eta 2012ko programazioa eztabaidatu egin direnez eta aurreikusitako ordutegian atzerapena dagoela ikusita, Idazkaritza Teknikoak 7. puntura, Planeamenduko Aholku Kontseiluko eta Gizarte Kontseiluko bileretan aztertutako gaiei buruzko informazioa puntura alegia, igarotzea iradokitzen du.

**5. Monografikoak: lehentasuna**

Puntu hau ondorengo saioetan eztabaidatzeko zain geratzen da.

**6. 2011ko programazioa**

[Gai hau gai zerrendako *IAKen partaidetzari buruzko inkestaren emaitzak* izenburuko 4. puntuaren baitan eztabaidatu da]

**7. Planeamenduko Aholku Kontseiluko eta Gizarte Kontseiluko bileretan aztertutako gaiei buruzko informazioa**

Haritzaldeko ordezkariak Planeamendu Kontseiluko eskura dagoen azken akta, 2009ko ekainekoa, HAPOaren behin behineko onarpenari buruzkoa, postaz bidali dela gogorarazten du. Bere aburuz eraldaketa puntual nahikoa baziren jendaurrean jartzeko bezala baina ez zen hala erabaki. Aipatzen du baita ere Planeamendu Kontseiluko lehendakaria ohiki bileretara joaten ez dela eta ez duela ezin etorria adierazten. IAKaren funtzionamenduak eraginkortasun txikia duela uste bada Planeamendu Kontseiluarena oraindik okerragoa dela uste du. Jakinarazten du elkarte desberdinen aldetik hainbat proposamen egon zirela eta haien artean elkar laguntzako giroa sortu zela. Azken bileraren akta, 2010eko ekainekoa alegia, ez zaie aurkeztu eta, ildo

parte de las actuaciones y programas municipales que se presenten en el mismo estén referidos a ese tema concreto.

El representante de Ingeba apunta que se debe dar la oportunidad de participar en el proceso de la toma de decisiones, antes de que la decisión esté tomada.

El representante de Fundación Cristina Enea Fundazioa propone realizar un monográfico para poder realizar aportaciones al Pacto de Energía Sostenible del Pacto de Alcaldes.

Ana Juaristi propone enviar la información y el borrador a los integrantes del CAMA para que puedan realizar aportaciones.

El representante de Azti propone traer las Mesas Técnicas al CAMA, y no que sean los integrantes del CAMA los que vayan a las Mesas Técnicas.

El representante de Haritzalde apoya la propuesta del representante de Azti.

Ana Juaristi comenta que en ocasiones puede ser complicado llevar los técnicos del ayuntamiento a las sesiones del CAMA, pero que se contaría con una alternativa que sería traer a un experto en energía de la consultora que colabora en la elaboración del Plan de Energía Sostenible.

El representante de Haritzalde propone que se realicen dos sesiones, la primera para recibir información y explicaciones de los técnicos y la segunda para poder realizar aportaciones. Pregunta si hay una mesa de planeamiento.

Ana Juaristi aclara que en la Agenda 21 hay una Mesa Técnica de Desarrollo Urbano. La Mesa de Planeamiento se creó dentro del marco del PGOU, no de la Agenda Local 21. Considera que si lo que se va a debatir no tiene recorrido, es mejor dejarlo, ya que no se debe lanzar un proceso participativo si no se tienen competencias en el tema.

La Secretaría Técnica informa que no se han recibido nuevas propuestas para monográficos. Dado que ya se han debatido tanto un posible monográfico como la programación 2012 y debido a la demora en el horario previsto, la Secretaría Técnica sugiere pasar al punto 7. Información sobre los temas tratados en el Consejo de Planeamiento y del Consejo Social.

**5. Monográficos: priorización**

Queda pendiente para próximas sesiones el debate de este punto.

**6. Programación 2012**

[Se ha tratado este tema dentro del punto 4 del orden del día, *Resultados encuesta sobre participación en el CAMA*]

**7. Información sobre los temas tratados en el Consejo de Planeamiento y del Consejo Social**

El representante de Haritzalde recuerda que se ha enviado por correo el último acta disponible del Consejo de Planeamiento, de junio de 2009, correspondiente a la aprobación provisional del PGOU. Opina que había suficientes modificaciones puntuales como para pasar por exposición pública, pero no fue considerado así. Matiza que el presidente del Consejo de Planeamiento no suele asistir a las reuniones ni excusar su asistencia.

| | |
|---|---|
| honetan, IAKaren Idazkaritza Teknikoa zoriontzen du, izan ere IAKeko bileretako aktetan bertan jazotakoa ongi jasotzen baita.<br><br>Haritzaldeko ordezkariak aitortzen du edozein ekarpen jaso eta Planeamendu Mahaira eramateko irekita daudela. Jakinarazten du HAPOaren bulegoari behin betiko onarpenaren dokumentazioa eskatu diola baina ez duela jaso. Behin behineko onarpenari dagokion dokumentazioa dauka soilik, inork kopiarik nahi badu. Lurralde Zatikako Plana Donostian eztabaidatu ez izana kritikatzen du.<br><br>SEOko ordezkariak bere entitateko komunikatu bat irakurtzen du Gizarte Kontseiluan IAKeko entitate ordezkari gisa, bere ordezkaritza horri uko eginez. Jakinarazten du krisiak aurrekontuetan izan duen eragina aztertzeko helburua zuen bilera bat ospatu zela maiatzean. Saio horri buruzko dokumentazioa dauka eta norbaitek interesik ukanez gero eska diezaiokeela azaltzen du.<br><br>Ugatzako ordezkariak saio batera entitate bakoitzetik zenbat pertsona etor daitezkeen galdegiten du. Idazkaritza Teknikoak bat baino gehiago etor daitezkeela erantzuten du baina botaziorik egonez gero entitate bakoitzetik bakar batek eman ahal izango du botoa.<br><br>Ana Juaristik iradokitzen du IAKa Gizarte Kontseiluan ordezkatu nahi duten entitateek e-mail bidez bidal dezatela beren hautagaitza. Eztabaida labur baten ondoren erabakitzen da hurrengo bileran hautatuko dela Gizarte Kontseiluko ordezkaria.<br><br>**8. Norberak lekarkeena**<br><br>Haritzaldeko ordezkariak Santa Clara ugartean behin-behinekoz instalatuta dagoen metereologi antena, paisajan sortzen duen eragina dela eta, beste leku batean ipini ote daitekeen galdetzen du.<br><br>Aztiko ordezkariak antena horren ezarpenaren arduraduna Azti ote den, bere kokapenaren zergatia eta balizko alternatibak ikertuko ditu.<br><br>Haritzaldeko ordezkariak HAPOari kritika egiten dio Mendizorrotzen ipinitako antenen kopurua ez baitu jasotzen.<br><br>Bilera amaitzen da. | Considera que si el funcionamiento del CAMA se considera ineficiente, el del Consejo de Planeamiento lo es aún peor. Informa que hubo varias propuestas por parte de las distintas asociaciones, creándose un clima de apoyo entre las mismas. Informa que no les han facilitado el acta de la última reunión, de junio de 2010. En ese sentido felicita a la Secretaría Técnica ya que en las actas del CAMA se recoge satisfactoriamente lo acaecido en la reunión.<br><br>El representante de Haritzalde declara que están abiertos a recoger cualquier aportación y llevarla al Consejo de Planeamiento. Informa de que ha solicitado los documentos de la aprobación definitiva a la Oficina del PGOU pero que no los ha recibido. Dispone de la documentación referida a la aprobación provisional si alguien quisiera una copia. Critica que el Plan Territorial Parcial no se haya tratado en Donostia.<br><br>La representante de SEO da lectura a un comunicado de su entidad en su faceta de entidad delegada del CAMA en el Consejo Social, renunciando a dicha delegación. Informa que hubo una reunión en mayo con el objetivo de analizar las consecuencias de la crisis en los presupuestos. Dispone de la documentación correspondiente a dicha sesión si alguien tuviera interés.<br><br>Ante la pregunta del representante de Ugatza acerca de cuántas personas por entidad pueden acudir a una sesión, la Secretaría Técnica informa que pueden acudir más de una pero que en caso de votación se emitirá un solo voto por entidad.<br><br>Ana Juaristi sugiere que las entidades interesadas en representar al CAMA en el Consejo Social envíen su candidatura por e-mail. Tras un breve debate, se decide elegir el delegado para el Consejo Social en la siguiente sesión.<br><br>**8. Ruegos y preguntas**<br><br>El representante de Haritzalde pregunta si la antena meteorológica instalada provisionalmente en la isla puede plantearse en otro lugar, debido al impacto paisajístico que genera.<br><br>El representante de Azti averiguará si Azti es la entidad responsable de la colocación de dicha antena y las razones de su ubicación, así como posibles alternativas.<br><br>El representante de Haritzalde realiza una crítica al PGOU, ya que no se recoge el número de antenas colocadas en Mendizorrotz.<br><br>Finaliza la reunión. |